

# BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 1853

*AGINDUA, 2023ko apirilaren 5ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez deklaritzen baitira goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak.*

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloan eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, bat etorritik, betiere, dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin, eta dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloan eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari, eta goi-mailako epaileen izaera honako hauei emango die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak 2023ko martxoaren 31n egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I. eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin. Era berean, II. eranskinean agertzen diren pertsonen eskaerak ukatu dira, bertan jasotzen diren arrazoietan oinarrituta.

Bigarrena.– Deklarazioak agindu hau argitaratzen den egunetik izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Argitara bedi agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 5a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2023ko apirilaren 18a, asteartea

## I. ERANSKINA

## GOI-MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZENDATUTAKOEN ZERRENDA

NAN	Esp. Zenbakia	Modalitatea	Kategoria
79116589Q	1062/23/D	Taekwondo	Kirolaria
16096902F	1069/23/D	Neguko Kirolak	Kirolaria
72471344T	1081/23/D	Hockeya	Kirolaria
49580082V	1047/22/D	Piraguismoa	Kirolaria
49584702Z	1041/22/D	Txirrindularitza	Kirolaria
72586004M	1085/23/D	Atletismoa	Kirolaria
72467363K	1079/23/D	Txirrindularitza	Kirolaria
45750069X	1075/23/D	Neguko Kirolak	Kirolaria
72557840Q	1048/22/D	Txirrindularitza	Kirolaria
79046652E	1043/22/D	Patinajea	Kirolaria
46366873T	1063/23/D	Boxeo	Kirolaria
72519319D	1051/23/D	Triatloia	Kirolaria
72596663S	1064/23/D	Surfa	Kirolaria
18080187W	1084/23/D	Futbola	Kirolaria
44349039W	1083/23/D	Futbola	Kirolaria
53984588T	1046/22/D	Padela	Kirolaria
32051079G	1071/23/D	Txirrindularitza	Kirolaria
30673418C	1045/22/D	Herri Kirolak	Kirolaria
79239217P	1058/22/D	Herri Kirolak	Kirolaria
72596608Y	149/22/T	Atletismoa	Teknikaria
34091277X	147/22/T	Golfa	Teknikaria
79113925C	47/23/J	Futbola	Epailea
45824485K	48/23/J	Tenisa	Epailea

2023ko apirilaren 18a, asteartea

## II. ERANSKINA

## GOI-MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILE IZENDATU EZ DIRENEN ZERRENDA

NAN	Esp.-zenbakia	Modalitatea	Ukatzeko arrazoia
73232028M	1087/23/D	Surfa	Ez du 4.1d) artikulua betetzen, hots, ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurreko urtean. WCT zirkuituko lehiaketetan aurkeztu ditu emaitzak. Kasu horretan, zirkuituaren azken sailkapena baloratu litzateke, azken rankinga.
79129259J	1050/23/D	Patinajea	Ez du 4.1a) artikulua betetzen, hots, 16 urte edo gehiago beteta izatea; horretarako, kirolariak balioesten diren kirol-merezimenduak lortzeko unean duen adina hartuko da kontuan.
72838232S	1049/23/D	Mendia	Ez du 4.1d) artikulua betetzen, hots, ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurreko urtean. Aurkezten dituen lehiaketak ez dira deialdi honen balorazioaren xede. Estatuko Txapelketetan eta Munduko Kopa bateko emaitza aurkezten du.
45195967R	1042/22/D	Eskubaloia	Ez du 4.1d) artikulua betetzen, hots, ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurreko urtean. Eskubaloiko EHF Europa Liga da aurkezten duen maila handieneko lehiaketa, klubaren arteko lehiaketa. Selektzioa parte hartzen duten lehiaketak bakarrik hartzen dira kontuan.
73035616J	1078/23/D	Mahai tenisa	Ez du 4.1d) artikulua betetzen, hots, ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. I. eranskineko taularen arabera, D Taldearen kasuan (urritasun fisikoak, psikikoak edo sensorialak dituzten kirolariak), lortu beharreko postua lehen 3en artean izango litzateke. 2022ko Munduko Txapelketetan kirolariak lortutako postua 5.a da.
79135108C	1074/23/D	Hipika	Ez du 4.1d) artikulua betetzen, hots, ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurreko urtean. Ponietan, Ipar Ligan CCN100 Los Navazuelosen lortu du emaitza.
22760937E	1080/23/D	Borroka eta sanboa	Ez du 4.1d) artikulua betetzen, hots, ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurreko urtean. Aurkezten duen lehiaketa 2022ko Espainiako txapelketa da.

2023ko apirilaren 18a, asteartea

NAN	Esp.-zenbakia	Modalitatea	Ukatzeko arrazoia
73038000M	1066/23/D	Halterofilia	Ez du 4.1d) artikulua betetzen, hots, ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurreko urtean. Aurkezten duen lehiaketa 2022ko Leoneko European junior Cup da.
45754668D	1082/23/D	Kirol egokitua	Ez du 4.1d) artikulua betetzen, hots, ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. I. eranskineko taularen arabera, D Taldearen kasuan (urritasun fisikoak, psikikoak edo sentsozialak dituzten kirolariak), lortu beharreko postua lehen 3en artean izango litzateke. 2022ko Munduko Txapelketan kirolariak lortutako postua 9.a da. Taldekako munduko txapelketako 1. postua ere aurkezten du. Ez dira kontuan hartzen banakako sailkapenen baturaren emaitza diren taldekako sailkapenak.
72600367Q	1086/23/D	Mahai tenisa	Ez du 4.1a) artikulua betetzen, hots, 16 urte edo gehiago beteta izatea; horretarako, kirolariak balioesten diren kirol-merezimenduak lortzeko unean duen adina hartuko da kontuan.
16106667C	1077/23/D	Hipika	Ez du 4.1a) artikulua betetzen, hots, 16 urte edo gehiago beteta izatea; horretarako, kirolariak balioesten diren kirol-merezimenduak lortzeko unean duen adina hartuko da kontuan.
73108939N	1044/22/D	Judoa	Ez du 4.1d) artikulua betetzen, hots, ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurreko urtean. Aurkezten dituen lehiaketak ez dira deialdi honetan baloratuko: - European Clubs Champions League: Lehiaketa hau klubren arteko lehiaketa da. Seleksioka parte hartzen duten lehiaketak bakarrik hartzen dira kontuan. - Abu Dabhiko Slam Handia; mota honetako lehiaketetan ez da lehiaketa bakar baten emaitzan baloratzen, azken rankinga baizik.
73228681Q	1076/23/D	Arrauna	Ez du 4.1d) artikulua betetzen, hots, ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. I. eranskineko taularen arabera, D Taldearen kasuan (urritasun fisikoak, psikikoak edo sentsozialak dituzten kirolariak), lortu beharreko postua lehen 3en artean izango litzateke. 2022ko Munduko Txapelketan kirolariak lortutako postua 6.a da.
78871886X	1072/23/D	Surfa	Ez du 4.1d) artikulua betetzen, hots, ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. I. eranskineko taularen arabera, D Taldearen kasuan (urritasun fisikoak, psikikoak edo sentsozialak dituzten kirolariak), lortu beharreko postua lehen 3en artean izango litzateke. 2022ko Munduko Txapelketan kirolariak lortutako postua 4.a da. Taldekako munduko txapelketako 3. Postua ere aurkezten du. Ez dira kontuan hartzen banakako sailkapenen baturaren emaitza diren taldekako sailkapenak.

2023ko apirilaren 18a, asteartea

NAN	Esp.-zenbakia	Modalitatea	Ukatzeko arrazoia
72837006P	1068/23/D	Judoa	<p>Ez du 4.1d) artikulua betetzen, hots, ez du egiaztatzen Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Aurkezten duen lehiaketa Europako Judo Kata 2022 txapelketa da.</p> <p>Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera, absolutua baino lehenagoko Europako Txapelketa baten emaitza Ebaluazio Batzordeak baloratu ahal izateko, Txapelketa horrek honako baldintza hauek bete beharko ditu:</p> <p>a) Dagokion nazioarteko federazioak antolatua izatea. b) Programa olinpikoan sartuta ez dauden modalitateen C multzoko lehiaketen kasuan, gutxienez 8 herrialde ordezkaturata egotea. Europako Judo Kata Txapelketan 6 herrialdek parte hartzen dute.</p> <p>Judo Kata Munduko Txapelketa. Ez du betetzen 4.1d) artikulua, hots, ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. I. eranskineko taularen arabera, proba ez-olimpikoan taldeka, kategoria absolutuan, 8 lehenengo postu lortu beharko lirateke. 2022ko Munduko Txapelketan kirolariak lortutako postua 9.a da.</p>
16092955Q	1073/23/D	Surfa	<p>Ez du 4.1d) artikulua betetzen, hots, ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. I. eranskineko taularen arabera, A Taldearen kasuan (kirol olinpikoetako kirolariak eta kategoria absolutua) lortu beharreko postua lehen 32ren artean izango litzateke. 2022ko Munduko Txapelketan kirolariak lortutako postua 33.a da.</p>
79187669A	1070/23/D	Padela	<p>Ez du 4.1d) artikulua betetzen, hots, ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. 2022an ospatutako Europako bi txapelketa aurkezten ditu.</p> <p>-FEBA 2022 Europako Txapelketa Bilbon:</p> <p>Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera, absolutua baino lehenagoko Europako Txapelketa baten emaitza Ebaluazio Batzordeak baloratu ahal izateko, Txapelketa horrek honako baldintza hauek bete beharko ditu:</p> <p>a) Dagokion nazioarteko federazioak antolatua izatea. b) Programa olinpikoan sartuta ez dauden modalitateen C multzoko lehiaketen kasuan, gutxienez 8 herrialde ordezkaturata egotea.</p> <p>Emakumezkoen Txapelketa honetan, 3 herrialdek hartu dute parte.</p> <p>-Junior European Padel Championship 2022 Valentzia:</p> <p>I. eranskineko taularen arabera, proba ez-olimpikoan, taldekako edo multzokako proba, absolutua baino lehenagoko kategorian, lehenengo 4 postuetako bat lortu behar litzateke. Kirolariak final-laurdenetako postua lortu Europako txapelketan, hau da, 5. eta 8. postuen artean.</p>

2023ko apirilaren 18a, asteartea

NAN	Esp.-zenbakia	Modalitatea	Ukatzeko arrazoia
72480098Z	1067/23/D	Judoa	<p>Ez du 4.1d) artikulua betetzen, hots, ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Aurkezten duen lehiaketa Europako Judo Kata 2022 txapelketa da.</p> <p>Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera, absolutua baino lehenagoko Europako Txapelketa baten emaitza Ebaluazio Batzordeak baloratu ahal izateko, Txapelketa horrek honako baldintza hauek bete beharko ditu:</p> <p>a) Dagokion nazioarteko federazioak antolatua izatea. b) Programa olinpikoan sartuta ez dauden modalitateen C multzoko lehiaketen kasuan, gutxienez 8 herrialde ordezkatura egotea. Europako Judo Kata Txapelketan 6 herrialdek parte hartzen dute.</p> <p>Judo Kata Munduko Txapelketa. Ez du betetzen 4.1d) artikulua, hots ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. I. eranskineko taularen arabera, proba ez-olimpikoan taldeka, kategoria absolutuan, 8 lehenengo postu lortu beharko lirateke. 2022ko Munduko Txapelketan kirolariak lortutako postua 9.a da.</p>
72839283P	1065/23/D	Surfa	<p>Ez du 4.1d) artikulua betetzen, hots, ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurreko urtean. Aurkezten duen lehiaketa zirkuitu nazionala da, FEsurfing 2022.</p>
78939295Y	163/23/T	Surfa	<p>Ez du 6.1e) artikulua betetzen, hots, goi-mailako kirolari izendatutako pertsona batek egindako zinpeko aitortpenaren bidez, eskatzailea bere kirol-prestakuntzaren arduradun tekniko gorena dela egiaztatzea. Ez du bere erantzukizunpean goi-mailako kirolaritzat jotako pertsonarik.</p>
44140487Z	165/23/T	Kirol egokitua	<p>Ez du 6.1.d) artikulua betetzen, hots, honako titulu akademiko hauetakoren bat izatea egiaztatzea: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziatura, edo Kirol Errendimenduko Unibertsitate Masterra, edo araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako goi-mailako teknikariaren kirol-titulazioa, edo aurreko edozein ordezkatzan duen titulazio akademikoa. Monitore nazionalaren titulua aurkezten du, I. maila. Beharrezkoa da goi-mailako teknikariaren kirol-titulazioa, III. Maila.</p>
72449460N	160/23/T	Judoa	<p>Ez du 6.1e) artikulua betetzen, hots, goi-mailako kirolari izendatutako pertsona batek egindako zinpeko aitortpenaren bidez, eskatzailea bere kirol-prestakuntzaren arduradun tekniko gorena dela egiaztatzea. Ez du bere erantzukizunpean goi-mailako kirolaritzat jotako pertsonarik.</p>
08872803R	161/23/T	Padela	<p>Ez du 6.1e) artikulua betetzen, hots, goi-mailako kirolari izendatutako pertsona batek egindako zinpeko aitortpenaren bidez, eskatzailea bere kirol-prestakuntzaren arduradun tekniko gorena dela egiaztatzea. Ez du bere erantzukizunpean goi-mailako kirolaritzat jotako pertsonarik.</p>

2023ko apirilaren 18a, asteartea

NAN	Esp.-zenbakia	Modalitatea	Ukatzeko arrazoia
44556010L	162/23/T	Arrauna	Ez du 6.1.d) artikulua betetzen, hots, honako titulu akademiko hauetakoren bat izatea egiaztatzea: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziatura, edo Kirol Errendimenduko Unibertsitate Masterra, edo araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako goi-mailako teknikariaren kirol-titulazioa, edo aurreko edozein ordezkatzan duen titulazio akademikoa. Monitore nazionalaren titulua aurkezten du, I. maila. Beharrezkoa da goi-mailako teknikariaren kirol-titulazioa, III. maila.